

# Bero-beroan

## Oñatiko Laixan Euskara Elkartea geldirik

EUSKARA ELKARTEAK azaroan ez ohiko batzarra egingo du. Estatutuak aldatuko dituzte eta euskara elkartearen jarduna eten egingo dute. Bazkideen zerrenda mantendu egingo da, baina ez diete kuota kobratuko eta elkarteak ez du diru-laguntzarik eskatuko. Laixan elkarteak lehen ere jakinarazi zuen etorkizuna kolokan zuela, jende gabeziatik. Duela bi urte saio

bat egin zuten eta lantaldeak antolatu zituzten ekintza zehatzak aurrera atera ahal izateko. Elkarteko ardura-dunen ustez, saioa ez da ondo atera eta elkarteari jarraipena emateko jendea behar dute. Elkartea geldialdian egongo da, ez da desagertuko, egunen batean erreleboa iritsiko denaren esperantzaz.

Irudipena dugu Oñatiko euskara elkartea ez dela zailtasunak dituen elkartea bakarria. Mende laurdena da euskara elkarteak sortzen hasi zirela.

Urteak pasa dira, gizartea aldatu da eta euskararen errealitatea ere bai. Zenbait euskara elkarte noraezean ibiltzeko arrazoia bakarria ez da izango: borondatezko lana modan ez egotea, elkarteek betetzen zituzten funtzioak erakundeek bereganatu izana... Bi hitzetan laburbildu ezin den gaiaz LARRUN hilabetekaria argitaratu genuen 2008ko ekainean. Nahi izanez gero [www.argia.com](http://www.argia.com) webgunean aurkituko duzu *25 urte eta gero: Norabidea pentsatzeko garaia* izenburupean.

### BAHEA

Egorospe erabiltzaileak [Tiraka.net](http://Tiraka.net)-en esanak: “Non zaude Etxezarreta, non Martinez de Marigorta, non gainerakook? Entzuten da –pasilloetan eta–galduxe modura zabilatzela; entzuten den moduan HABEko bileran interpreteen lana behar izan zenutela. Hori, baina, funtzionarioen uste eta asmo txarrak baino ez dira izango. Zurrumurru hutsak. Izorratu gurea. Edo, okerreanean, iritzi/alderdi batenganako herria.

Nik pentsatu gura dut baduzuela ondo aztertuta Euskararen Erabilerarako azken Plana, Baztarrrika, Lozano eta horiek prestatuta utzi zutena. (...)

Ez dut dudarik, azken batean, euskarak Administrazio honetan bizi duen egoera anormalari aurre egingo diozuela tinkotasunez. Laguntza behar baduzue, eskatu!! Bai, bai, ez dudarik egin: gu ‘de la cosa’kook (horrela deitzen digute euskara lan-tresna legetxe erabiltzen dugunoi), nahiz eta gehienbat beste pentsamolde batekoak izan, gertu gaude bultza egiteko, Tira egiteko. Ez, ordea, denbora galtzeko. Ez lehen, ez orain. (...)

Orain artekotik ezin ezer esan, ez bada ez zaituztegu entzun, ez ikusi ezta sumatu ere. Wanted, non zaudete?”



### TALAIAN

## Gazteen langabezia

Hilabetez hilabete, langabeziaren datu estatistikoek ugalketa ikusten ari gara. Joan den astean Espainiako Estatu langabeziaren datu orokorrak eman ziren. Euskal Herrian 165.000 lagunetik gora dira jada langabezia daukenak, biztanleria aktiboaren %11,35. Jakina, iraileko datuek abuztukoak gainditu dituzte. Hemendik aurrera espero da okerragoak izatea, Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) berriak aplikatuko baitira.

Gazteen langabeziak sortzen duen errealitate larrian jarri nahi dugu arreta. Eurostat-en datuen arabera, urtebetean, milioi bat gazte gizendu dituzte langabeziaren zerrendak Europar Batasunean, bost milioiko zifra orokorrera iritsiz. Eurogunean, lanik gabe zeuden gazteen portzentajea %18,4ra iristen zen martxoan; aldir, langabetuen portzentaje orokorra %8,8koa zen. Euroguneko hamazazpi estatuetan, 25 urtetik beherako gazte langabetuak 3.100.000 ziren, 2008an baino 650.000 gehiago. Espainiako Estatuaren kasuan –Hego Euskal Herriko egoera hor kokatu dezakegu– zifra horiek askoz okerragoak dira: gazteen langabezia %33,6ra igo zen 2009ko lehen hiruhilekoan, langabezia orokorraren %16,5aren aldean. Hau da, lan egiteko baldintzatan zeuden hiru gaztetik batek ez zuen lanik aurkitzen.

Administrazioen zeregina izan behar luke egoera hori sortzen duten arrazoiak aurkitu eta beharrezko neurriak hartzea. Beste neurri batzuen artean, beharrezkoa litzateke hezkuntzaren planifikazio berria, eta gazteak orientatzea etorkizun profesionalera begira, unibertsitateari dagokionean, eta baita baztertuta dagoen lanbide heziketaren arloan ere. Agian, falta dira galdaragile, tornulari, mekaniko, sopletelari, fresatzaile eta harginak... eta agian, unibertsitario gehiegi dago.

Juan Mari Arregi